


VILLA MERCHE
D MAILA**SAN ANTONIO 2**

Frantzisko Urkola, 1922.

Deskribapena

Estilo kantabiarreko villa, ertza egiten duen dorrea duena estilo horretako bolumen eskemari jarraikiz; bat egiten du, gainera, mende hasierako bizitegiatarako modekin. Etxeak villa baten berezko zenbait motibo dauzka, hala nola belvederea, terraza, balkoia eta portxea. Estalkiak lau isurki dauzka proiektuan, baina egiaz lau da, eta gainera terraza handi bat dauka, atzealdean, beheko solairuaren gainean. Solairu nagusi hau erdisoto baten gainean altxatzen da, dagokion harrizko zokaloa ere baduela, eta lehen solairua du hurrena; dorreak beste maila bat gehiago hartzen du gorantz. Apaindura elementuak ertzeko garitetan, murru aurreratuetan, idulki erremateetan eta erlaitzeko modiloietan daude.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: apaindura emokatuak eta estalkiak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.